

Laugarren mailako ikasleek ostiralean, ekainaren 2an, jasoko dituzte gradu amaierako orlak Arrasateko Amaia antzokian

2017/05/29

Ekainaren 2an, ostiralarekin, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko laugarren mailako ikasleek gradu bukaerako orla jasoko dute Arrasaten. Ekitaldia Amaia antzokian egingo da, 18:00etan hasita.

Aurten, **207 ikaslek jasoko dute gradu bukaerako orla**. Horietatik 94 izango dira Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleak, 57 Haur Hezkuntzakoak eta 51 Ikus-entzunezko Komunikazio graduakoak. Gainera, gradua *online* ikasi duten 5 ikasleek ere jasoko dute orla.

Arrasaten egingo den ekitaldian **650 lagun** inguru elkartuko dira. Izan ere, orla banaketa ekitaldira gonbidatuak izan dira aurten gradua bukatuko dituzten ikasleak, irakasleak eta ikasle horien senide eta lagunak.

Ekitaldi ofiziala bukatu ondoren, luntxa egongo da Amaia antzoki ondoko Uharkape pilotalekuan.

EGITARUA

Hasiera: 18:00

- **Begoña Pedrosa** Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanorearen agurra.
- **Iñigo Ramirez de Okari Telleria** Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakasle eta ikertzailearen hitzaldia: "40 urtean euskal gizartean eragiten".
- **Orla banaketa**.
- **Bixente Atxa** Mondragon Unibertsitateko errektorearen hitzak.
- **Eneko Balerdi eta Beñat Rallaren** dantza ikuskizuna.
- **Luntxa** Uarkape pilotalekuan.



lazko ekitaldia hasi aurretik hartutako arqazkia.